



2DEO – EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN LABORATEGIA 2020KO DEIALDIAREN OINARRIAK

I. AURKEZPENA

Ikus-entzunezko edukiak gizartearen ezinbesteko elementu dira gaur egun; izan ere, gure iruditegi kolektiboa sakondu, osatu eta eguneratu egiten dute. Horrez gain, beste esparru eta sektore batzuk aberasten ere laguntzen dute, pertsonen esperientziak hainbat mailatan hobetzen dituztelako. Gainera, ikus-entzunezko edukiak hizkera eta formatu ugari darabiltzate, eta horrexegatik eskaintzen dizkiete gero eta soluzio gehiago beste sektore batzuei, izan kulturaren, gizartearen edo ekonomiaren arlokoak.

Ikus-entzunezkoen kontsumoa asko aldatu da azken urteotan, baita edukiak eta kanalak ere. Gero eta produktu eta soluzio gehiago dago, baina, aldi berean, gero eta kalitate eta moldagarritasun handiagoa eskatzen zaie.

Ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalek aukera dute esparru horretan sakontzeko, eta, hartara, estetika eta formatu berriak landu eta narrazioan eta teknologia berrietan sakondu dezakete.

Tabakalerak, sorkuntza-zentroa den heinean, ikus-entzunezkoen sektorera bideratutako laguntza-deialdi bat egingo du 2DEOren bitartez. Bada, deialdi honen eta Tabakaleraren beste programa batzuen bidez, hainbat eragilek eta beren proiektuek partekatuko duten espazio bat sortzea da asmoa, balizko lankidetzak sustatzeko.



2. HELBURUA ETA EKARPEN EKONOMIKOA

Deialdi honen helburu nagusia da ikus-entzunezko edukietan oinarritutako proiektuen garapena eta prototipoak sustatzea. Horiek ikus-entzunezko sektorerara bideratuta egon daitezke edo ez. Horretarako, laborategiak laguntza ekonomikoa eman eta jarraipena egingo die deialdi honen bi ataletan hautatutako proiektuei.

Salbuespen izango dira filmak eta dokumentalak egitera bideratutako proiektuak.

Deialdiaren atalak:

1. atala: (2020ko martxoaren 16tik urriaren 31ra)

- 2020ko maiatzean proiektuak hautatuko dira, gehienez ere 8, eta dagokion ebazpenaren bidez jakinaraziko zaie erabakia interesdunei.
- Deialdiaren lehen atalean hautatutako proiektuek aurreprodukzioko txosten bat egingo dute. Atal hauek izango ditu, gutxienez: proiektuaren deskribapen xehatua, lanaren kronograma, aurrekontua, ekipo tekniko-artistikoa eta 2deok deialdiaren 1. atalean jaso nahi duen bestelako edozein alderdi.
- 2020ko ekainean, laborategiak hainbat prestakuntza-saio antolatuko ditu ikus-entzunezko proiektuaren aurreprodukzioa gauzatzeko. Proiektu hori talde baten izenean aurkeztu bada, gutxienez proiektuaren ordezkaria joan beharko da saio horietara. Prestakuntza-saio horietan ikus-entzunezko produkzioari buruzko hiru alderdi jorratuko dira: edukiaren kontakizuna, lan-prozesuak eta proiektuak eta jabetza intelektuala.
- 2020ko uztaila eta urria bitartean, proiektuek aholkularitza profesionala jasoko dute hiru arlo horietan. Proiektua talde baten izenean aurkeztu bada, gutxienez taldeko ordezkariak eta gehienez ere 5 kidek hartuko dute parte.
- Deialdiaren 2. atalera aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da prestakuntza-saioen eta aholkularitza-hitzorduen % 85era bertaratzea.



- 2020ko azaroaren lehen, aurreprodukzioko txostena aurkeztu beharko dute 1. atalean hautatuak izan diren parte-hartzaileek.
- Hautatutako proiektu bakoitzak 4.000 € jasoko ditu.

2. atala: (2021eko urtarriletik apirilera)

- 1. atala gainditu duten proiektuetatik 3 hautatuko dira, gehienez ere.
- 2020ko abenduan hautatuko dira proiektuok, eta dagokion ebazpenaren bidez jakinaraziko zaie erabakia interesdunei.
- 2. atal honetan, hautatutako proposamenek 5. oinarrian xedatutakoaren arabera dagokien dirulaguntza jasoko dute. Laguntza hori proiektuaren prototipoa garatzeko erabiliko dute, 2021eko urtarrila eta apirila artean.
- Hautatutako proiektu guztien artean bana daitekeen gehieneko zenbatekoa 50.000 € da.
- Prototipoa ekitaldi publikoan aurkeztuko da. 2021eko maiatzean izango da, 2deko ikus-entzunezkoen laborategian.

3. PARTE-HARTZAILEAK

Egoitza fiskala Europar Batasunean duen pertsona fisiko eta juridiko oro aurkez daiteke deialdi honetara.

Halaber, batera parte hartu ahal izango dute zenbait pertsona fisikok edo juridikok, beren arteko harremana formalizatzeko beharrik gabe. Kasu horretan, pertsona fisiko bat izendatu edo hautatu beharko dute proiektua KGNZ/Tabakaleraren aurrean ordezkatzeko, ondore guztietarako. Talde bateko kideek ezingo dute bakarka parte hartu.

Parte-hartzaile eta/edo ordezkari bakoitzak nahi beste proiektu aurkeztu ditzake, baina proiektu bakarra hautatuko da eskatzaileko.



4. EPAIMAHAIA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Epaimahai bat eratuko da lehiaketaren atal bakoitzeko, aurkeztutako proiektuak baloratze aldera. Epaimahaikideak KGNZ/Tabakalerako kideak eta ikus-entzunezko sektoreak egiaztatutako gaitasun profesionala duten aditu independenteak izango dira.

Epaimahaiak irizpide hauen arabera baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak:

Deialdiaren 1. atalean hautatua izateko irizpideak eta faseak

1. FASEA

Hautagaiak eta/edo proiektuaren ordezkariak dokumentazio guztia helarazi beharko du; hala egiten ez bada, ez du prozesuan aurrera egingo.

2. FASEA

- Bideragarritasuna: proiektuak prototipo bihurtzeko duen gaitasuna, hainbat sektoreri zuzendutako ikus-entzunezko proiektu gisa dituen aukeren arabera.
- Edukia: proiektuaren potentziala gaien, estetiken, joeren, kontakizunen eta formatuen berrikuntzari eta bestelako proiektuei ikus-entzunezkoen sektoretik soluzioak emateko duen gaitasunari dagokienez.
- Eragina: hainbat mailatan izango duen inpaktua.

3. FASEA

- Proiektuaren hizkuntza: edukia euskaraz egotea.
- Proiektua gauzatzeko, teknologia berriak erabiltzea.
- Proiektua merkaturatzeko eta nazioartekotzeko aukera izatea.

Deialdiaren 2. atalean hautatua izateko irizpideak eta faseak



- Parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak aurreprodukzio-prozesuan egindako lana:
 - Aurreprodukzioko txostenaren kalitatea Baliabideen, proposatutako epearen eta prototipoaren arteko oreka
 - Erakutsitako konstantzia eta konpromisoa 2de laborategia erabiltzea lantoki gisa

Azken balorazio horretan 3 proiektu hautatuko dira, gehienez ere. Horiek prototipoa gauzatu beharko dute, eta horretarako izango duten laguntzaren zenbatekoa hurrengo oinarrian ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

Epaimahaiak deialdia hutsik uzteko aukera izango du, baldin eta uste badu aurkeztutako proiektuek ez dituztela eskatutako ezaugarriak edo merituek betetzen, eta ezingo da errekurtsorik aurkeztu erabaki horren kontra.

5. ZUZKIDURA ETA EPEAK

Honako hau eskaintzen du 2DEOk: proiektuaren aurreprodukziorako laguntza, laguntza ekonomikoa, laborategiko baliabide teknikoak eta inguruko eragileek egitasmoak ezagutzera emateko aukera.

Laguntzen zenbatekoa

82.000 € emango dira guztira laguntzetan, honela banatuta:

1. atala: 32.000 € (4.000 € hautatutako proiektu bakoitzeko).
2. atala: 50.000 € (edonola ere, hautatuko proiektu bakoitzak ezingo ditu 25.000 € baino gehiago jaso).

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik datozela.



Proiektuak gauzatzearekin zuzenean lotutako gastuak ordaintzera bideratuko da laguntza, eta prototipoa garatzeko (2. atala) beharrezkoa dela ondo azaldu eta justifikatzen duen memoria bat egin beharko da, betiere deialdi honetarako ezarritako epealdian egingo bada. 2. atalari dagokion memoria 2021eko maiatzaren 1a baino lehen entregatu beharko da.

2. atalean, jasotako laguntzaren % 15 bideratu ahal izango da, gehienez ere, parte-hartzaileen soldatak ordaintzera.

Halaber, laguntzaren xede izan daitezke BEZa ordaindu behar duten eta prototipoaren produkzioarekin zuzenean erlazionatuta dauden gastuak, BEZa barne.

Aldeetako bakoitzak Espainian indarrean dagoen legeriaren arabera ordaindu beharreko zergak ordainduko ditu. Bidezkoa bada, KGNZ/Tabakalerak dagokion atxikipena egingo die parte-hartzaileei eta/edo ordezkariari emandako laguntzagatik.

Epeak

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 16tik apirilaren 15eko 23:59ak arte [UTC+2] egongo da zabalik. 1. atalean hautatutako proiektuen zerrenda 2020ko maiatzaren 15ean argitaratuko da.

1. atalean hautatutako parte-hartzaileek bost hilabete izango dituzte proiektuen aurreprodukzioko txostenak egiteko; zehazki, 2020ko ekainetik urrira. Horrez gain, azaroaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dute hilabete horietan egindako aurreprodukzioko txostena.

Deialdiaren 2. atalean hautatutakoek lau hilabete izango dituzte proiektuaren prototipoa gauzatzeko; zehazki, 2021eko urtarriletik apirilera. Gauzak horrela, maiatzaren 1a baino lehen aurkeztu beharko diote prototipoa bukatua laborategiari.



Hauek dira laguntzak emateko epeak:

1. atala:

- Laguntzaren % 50 hautatua izatean jasoko da.
- Gainerako aurreprodukzioko txostena aurkeztu ondoren jasoko da; txostena 2020ko azaroaren 1a baino lehen aurkeztu behar da.

2. atala:

- Laguntzaren % 50 2021eko urtarrilean jasoko da.
- Gainerakoa prototipoa eta hori produzitzeko gastuak justifikatu eta azaltzeko memoria aurkezten denean jasoko da. Memoria hori 2021eko maiatzaren 1a baino lehen aurkeztu behar da, oinarri hauetan ezarritako eran.

6. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezten diren parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak honako konpromiso hauek onartzen dituzte:

- Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Egoitza fiskala Europar Batasunean izatea.
- Parte-hartzaileak eta/edo ordezkariak zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, zeinek galarazi egiten baitio laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea, eta ez edukitzea horiek jasotzeko legezko debekurik.
- Proiektua 2DEOren instalazioetan gauzatu ahalko da 2020ko ekainetik aurrera.
- Deialdi honetako 5. oinarrian ezarritako epeak betetzen ez badira eta ez-betetzea justifikatzen ez bada, emandako laguntzak bertan behera gera



daitezke eta esleipendunak jasotako laguntzak itzuli beharko ditu, hala badagokio.

- KGNZ/Tabakalerak eskubidea izango du laborategian egiten den lana erabiltzeko deialdi honen xedea, edukia eta emaitzak ezagutarazi eta herritarren esku jartzeko.
- Deialdi honen xede den programan parte hartzeko hautatu diren proiektuen harira sortutako ikus-entzunezko lanen banaketa eta aurkezpenean aipatu egin beharko da proiektu honetan parte hartu dutela, bai eta Tabakaleraren eta 2DEOren markak, logotipoak eta izen komertzialak erabili ere (adibidez, kredituetan).
- 2DEO eta Tabakaleraren espazioen erabilera-arauak errespetatu beharko dira.

7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

KGNZ/Tabakaleraren webgunean kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak. Izena emateko, sareko formularioa bete eta honako informazioa duen txostena erantsi behar da, PDF formatuan:

- NANaren edo IFK txartelaren kopia.
- Zerga-egoitzaren ziurtagiria, zerga-administrazio eskudunak emana.
- CVa (taldeen kasuetan, gehienez ere 6 CV onartuko dira, eta CV horiek proiektuko kiderik adierazgarrienenak izango dira).
- Proiektuaren ideia eta motibazioa (500 hitz gehienez ere).
- Ikus-entzunezko edukiaren deskribapena eta erreferentziak (250 hitz gehienez ere).
- Produktuaren prototipoaren forma (250 hitz gehienez ere).
- Hartzaile diren ikusleak eta/edo erabiltzaileak, interesa eta inpaktua (250 hitz gehienez ere).



- Proiektuari buruzko bestelako informazio esanguratsua (1.000 hitz gehienez ere).

Dokumentazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez daiteke.

8. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaile eta/edo ordezkari guztiek bermatuko dute deialdi honetara aurkeztutako proiektu, dokumentu eta ikus-entzunezko material guztiak originalak direla eta hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak urratzen ez dituztela; berdin hautatuak badira deialdian parte hartu bitartean sortzen dituzten eduki guztiekin ere.

Oinarri hauek onartuz gero, hautatutako parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak baimena ematen diote Tabakalerari egun ezagutzen diren euskarrietatik edozeinetan erabiltzeko parte-hartzaile eta/edo kide horiek Tabakalerari emandako dokumentu eta material grafiko nahiz ikus-entzunezko material oro, bai eta proiektua gauzatu bitartean laborategian sortutakoak ere. Erabilera horren xede bakarra izango da deialdia, haren edukiak eta emaitzak ezagutaraztea eta herritarren esku jartzea, edozein kanalen bidez eta doan. Ondorioz, Tabakalerak baimena izango du horiek erakutsi eta publikoki jakinarazteko, edozein kanalen bidez, bai proiektua gauzatu bitartean, bai bukatu ondoren, epemugarik gabe.

Gorako esandako horrek ez ditu kaltetuko autorearen eskubide moralak eta aipatu diren dokumentuen eta materia grafikoen, testuzko materialen eta/edo ikus-entzunezko materialen jabetza intelektualaren barnean sartzen diren ondare-eduki eskubideak; izan ere horiek sortu dituzten parte-hartzaileen eta/edo ordezkarien esku egoten jarraituko dute.



Edonola ere, parte-hartzaile eta/edo ordezkari bakoitzak Tabakaleraren aurrean erantzun beharko die hirugarrenek jabetza intelektuala dela-eta jar ditzaketen erreklamazioei, honako hauen harira: (i) deialdi honetan aurkeztutako proiektuak, dokumentuak eta material grafikoak, testuzko materialak eta ikus-entzunezko materialak; (ii) hautatuak izan badira, deialdian parte hartu bitartean sortutako dokumentuak eta material grafikoak, testuzko materialak eta ikus-entzunezko materialak. Hala, Tabakalerari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkiote kontzeptu horien harira egon litezkeen erreklamazioetatik eratorritako kalte eta galera guztiengatik.

Gehigarri gisa, eta Tabakaleraren markak, logotipoak eta/edo izen komertziala 6. oinarrian zehaztutako eran erabili ahal izan ditzaten, erakunde honek elementu horiek ustiatzeko lizentzia emango die hautatutako parte-hartzaile eta/edo ordezkariari, modu ez-esklusiboan, doakoan eta transferiezinean. Lizentzia hori proiektuetatik eratorritako ikus-entzunezko obrak publikoki komunikatu eta banatzeko aurkezpenetara mugatzen da.

9. DATUEN BABESA

Parte-hartzaile eta/edo ordezkariari jakinarazten diegu oinarri hauek onartuz gero, baimena ematen diotela Tabakalerari eskaera aurkezten duten unean Tabakalerari ematen dizkioten datu pertsonalak eta, hautatzen badituzte, deialdian parte hartu bitartean Tabakalerari ematen dizkioten gainerako datuak tratatzeko, honako helburu hauekin: eskaera izapidetu eta kudeatzea, deialdian parte hartzea eta emaitzak ezagutaraztea.

Datu pertsonalak erakunde eta/edo organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, komunikatzeko legezko betebeharra dagoenean. Halaber, jarraian ageri den 10. oinarrian ezarritakoarekin bat, deialdian parte hartzeko hautatzen diren parte-hartzaile eta/edo ordezkarien irudiak eta izenak hirugarrenei jakinarazi ahalko zaizkie, Tabakaleraren webgunean argitaratuta edo erakunde horren beste



euskarri ukigarri edo ukiezin batzuen bidez, zentroaren jarduerak jakinarazteko xedearekin.

Testuinguru horretan, jakinarazten dugu beharrezkoa dela datu pertsonal horiek ematea; beraz, ematen ez badira, laguntza publikoaren eskaera eta proiektuko parte-hartzea ezin izango dira gauzatu.

Tabakalerak gorde egingo ditu parte-hartzaileen eta/edo ordezkarien datu pertsonalak, baina soilik hautagaitza baloratzeko beharrezkoa den epean eta, hala badagokio, deialdiko parte-hartzea kudeatzeko epean, bai eta legezko betebeharrak betetzeko errespetatu behar den epe gehigarrian ere.

Edonola ere, parte-hartzaileei jakinarazten diegu eskubidea dutela (i) Tabakalerari datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, bai eta datu horiek zuzendu edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko edo datuak beste norabait eramateko eta tratamenduari uko egiteko eskubidea ere. Horretarako, eskaera egin beharko diote Tabakalerari, idatziz, pribatasuna@tabakalera.eu helbidera idatzita, eta gai gisa “*2DEO deialdi publikoa 2019*” adierazita. Mezu horri datuen titularrak sinatutako gutun bat (jakinarazpenetarako helbidearekin) eta NANaren kopia erantsi beharko zaizkio. Eskubidea dute, halaber (ii) Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren edo eskumena duen beste edozein Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazio bat jartzeko, bereziki ezin izan dituztenean eskubideak behar bezala erabili.

10. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuz gero, deialdi honetan parte hartzeko aukerazten dituzten parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak berariaz ematen diote baimena Tabakalerari (i) bitarteko tekniko egokien bidez (argazkiak, bideoak, etab.) proiektuan izan duten parte-hartzea erregistratzeko, parte-hartze hori Tabakaleraren espazioetan gauzaten denean, (ii) bai eta irudi horiek eta parte-hartzaile nahiz ordezkarien izenak Tabakaleraren webgunean eta gainerako



euskarri ukigarri eta ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko ere, deialdi honen xede den programa, horren edukiak eta emaitzak ezagutarazi eta herritarren esku jartzeko xedearekin bakarrik.

Edonola ere, parte-hartzaile eta/edo ordezkariak jakinarazten diegu eskubidea dutela edozein unetan baimen hori kentzeko.

11. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzen dutenek, deialdira aurkezteagatik bakarrik, onartu egiten dituzte hura arautzen duten oinarriak. Eskaeran informazioa falta bada, parte-hartzaileak deialditik kanpo geratuko dira.

Info+: 2deo@tabakalera.eu